



## Euskaltzaindia Frantziako legedian (2005ean)

Bernard Oyharçabal

► **To cite this version:**

| Bernard Oyharçabal. Euskaltzaindia Frantziako legedian (2005ean). 2005. <artxibo-00944690>

**HAL Id: artxibo-00944690**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00944690>**

Submitted on 11 Feb 2014

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

## **EUSKALTZAINDIA FRANTZIAKO LEGEDIAN**

*B. Oyharçabal,  
euskaltzainburuordea*

Zuzendaritzak eskatu dit Barne-Jardunaldi hauetan zenbait argitasunen ekartzea Euskaltzaindiak Iparraldean duen gaur egungo izaera juridikoaz, ondotik denen artean ikusteko ea legezko egoera hori, beharrez, hobe daitekeen, eta zer gisaz. Beraz, aurkezpen honek ez du deus berririk ekarriko, ez eta deus berririk erakatsiko Iparraldeko egoeraren berri jadanik zekiten euskaltzainei, haren helburua baita zertan gauden azterkatzea, eta hobekuntzarik egin badaitenke, nondik abiatzekoak garen gogoratzea.

### **HISTORIA PISKA BAT**

#### **Euskaltzaindiak Frantziako legediaren arabera izaerarik ez zuen garaia (1918-1987)**

Lehenbiziko puntua gogoan izatekoa dena da kasik hirurogeita hamar urtez Euskaltzaindiak ez duela batere legezko izaerarik izan Frantzian, eta duela hogeitaz urte ere ez zuela oraino.

Denek dakigun bezala, Hegoaldeko lau herrialdeetako erakundeek sortu zuten Euskaltzaindia, eta haste-hastetik Iparraldeko euskalkien ordezkariak erakundearen barnean izan behar zirela pentsatua izan bazen ere, Espainiako legeen arabera eratu zen erakundea, eta hala bakarrik, garai hartan, mila arrazoiengatik, nekez besterik gerta baitzitekeen.

Luzaz Euskaltzaindiak ez du izan Iparraldean denborarekin, eta bereziki hirurogeiko hamarkadako urteen ondotik, izanzen zuen itzal eta eragina. Gerla aitzinean eta ondoan, Euskaltzaleen Biltzarra zen Iparraldean eta Frantziako legedian euskaltzaleak biltzen zituen erakundea eta euskararen kontuetan onespenez zabalena zuena. Ez pentsa, halere, bi erakunde horiek mugaz bi parteetan

lan bera egiten zutela. Batere ez baitzen hala. Ezen, Euskaltzaindia erakunde akademikoa izan da hastapenetik, eta Eskualtzaleen biltzarra berriz, ez (1).

Frankismoa erortzearekin, Euskaltzaindiak legezko izaera berria Erret-Akademia bihurtuz erdietsi zuenean, euskararen eremu osoan, Iparraldean ere, hedatzen zela adierazi nahi izan zen haren araudietan, ordezkari bat Baionan izanen zela zehaztuz. Ordea, Madrilgo legelariak jakinarazi zuten ezin agerian aipa zitekeela araudi haietan Espainiatik kanpoko eremurik. Jokutria ttipi bat asmatua izan zen orduan, agerian ezin egin zitekeena isilka bezala bideratzeko: Euskaltzaindiak bere ordezkariak euskal herrialdeetako hiriburuetan jarriko zituela erranez, beste xehetasunik eman gabe, ez zen baztertzeko ordezkari bat Frantziako lurraldean izatea, nahiz ez zen argiki erraten ere. Soluzio hori guztiz baliagarria izan zen urte haietan. Izan ere, bai Euskaltzaindiak eta bai euskarak berak ere, Hegoaldean baitzituzten indar gehienak, arras egoki izan zen aterabide hau gure erakundearentzat bere lanen Euskal Herri osoan zabaltzeko.

Haatik, Frantziako legeen arabera, Euskaltzaindia Espainiako erakunde bat zen beti, eta ez zuen legezko izaerarik Frantzian. Egia erran, euskara eza-gutza ofizialik gabe izanik, eta maila guzietan agintariak gogo guti izanik euskararen laguntzeko, ez zuen horrek ondorio handirik.

### **Iparraldeko Euskaltzaindia 1901eko elkarte gisa deklaratu (1987an)**

Bizkitartean, 1980. urteko hamarkadan giroa piskanaka aldatzen hasi zen, eta gure akademiak gero eta argiago ikusi zuen Euskaltzaindiari Frantzian ere legezko gorputz baten emateko beharra. Nola egin, ordea? Euskaltzainburuordeak frantses hiritartasuna zuen orduan, eta orduko suprefetarekin harremanetan jarri zen kontu horren aztertzeko. Ideia izan zen orduan Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkariak legezko izaera zerbait ematea Frantzian, aitzinetik jakinik gisa guztiez, euskarak eza-gutza ofizialik ez izanki, ez zitekeela izaera hori Espainian kasik hamar bat urte lehenago erdietsi zuenaren heinekoa. Horrela 1987an Baionako erakustokian egin zen biltzar batean (1987/08/12) Iparraldeko euskaltzainek deliberatu zuten 1901eko legearen araberrako elkarte bat deklaratzeari, haren araudiak argi uzten baitzuen i) kideak Iparraldeko euskaltzainak zirela, eta ii) elkartearen xede soziala Euskaltzaindia Frantzian ordezkatzeari zela.

Elkartearen legezko sorrera Errepublikaren Kaseta ofizialean 1987ko irailaren 9an egin zen. Horren ondorioz, handik aitzina zenbait urtez, Euskal-

---

(1) Eskualtzaleen Biltzarrak mende hastapenean sortu baino anitzez geroago, 1927an, hartu zuen legezko izaera Frantzian, bere burua 1901eko legearen araberrako elkarte gisa deklaratu. P. Charritonek jakinarazi didanaz, J. Etchepare medikuak eginarazi zion urrats hori Eskualtzaleen Biltzarrari.

tzaindiko Iparraldeko ordezkartzak frantses elkarte arrunt baten izaera izan zuen, gisa horretan diru laguntza publikoak ere eska zitzakeelarik.

### **Euskaltzaindiari Onura publikoko elkarteen izaera aitortzen zaio (1995ean) (2)**

1987an sortu egoera horrek zenbait urte iraun zuen. Alabaina, 1990eko hamarkadan, egoera piska bat hobeturik, Elkartea Onura publikoko elkarte gisa ezagutua izateko aukera ikusi zuen Euskaltzaindiak. Jakiteko da legeen arabera hori dela Frantzian irabazterik egiteko xederik ez duen elkarte pribatu batek izan dezakeen ezagutza mailarik gorena, eta horretaz, Euskaltzaindiak nahi izan zuen Frantzian haren ordezkari zen elkarte bereziak delako Onura publikoko izaera hori erdietsen zezan, kontuan harturik, bereziki, zenbait abantaila ere ematen dituela ezagutza horrek (adibidez, enpresa batek edo norbaitek emaitzak egiten badizkio holako elkarte bati, zerga oinarria zerbaitez gutitzen zaio).

Aldaketa horren prestatzen hasi zelarik Euskaltzaindia, orduko suprefetari (3) adierazi zitzaion Europaren garaian ez zuela itxura handirik, Euskaltzaindiak Frantzian legezko izaera izateko, beste Euskaltzaindi bat, bestetik desberdina, sortu beharrik, jakinez praktikan hartan frantses hiritartasuna zuten euskaltzainak bakarrik biltzen zirela. Euskaltzaindiaren barnean horrelako bereizkuntza egitea guztiz desegoki zela azalduz, harekin aztertu zen zer egin zitekeen makur horren zuzentzeko.

Suprefeturan Europak eskaini bideak ikertu ziren, baina laster argi geratu zen (garai hartan, erran nahi baitu, 1992an edo) Europa mailako elkartegorputzik ez baitzen EBko legedian, bide hori hetsia zela, hau da Estatuen gaineko edo estatuen arteko elkarte europarrak ez zitekeela era.

Halere, beste bide bat ikusi zen erakundearen bikoiztasunaren gainditzeko: erakunde bakarra izanikan ere, hari legezko bi izaera ematea, bata Frantzian eta bestea Espainian, Frantziakoaren helburu soziala Espainiakoren Frantzian ordezkatzeari izanik. Proposamen hori eginga izan zitzaizen Euskaltzainei (*erakunde bakarra bi nortasun juridikorekin*) eta horrela onartu zen.

Egia erran, proiektua suprefetarekin prestatu izan bazen ere, Estatu Kontseiluak denbora luze eman zuen araudi berrien onartzeko. 1992ko irailean utzi ziren araudi berriak eta Onura publikoa ematen zuen dekretua 1995ean argitaratu zen Frantziako Kaseta ofizialean (1995/02/20).

---

(2) 1901eko elkarkeak legez deklaritzen badira (ez onesten); haatik, onura publikokoa izatea Barneko Ministroak hartu dekretu baten bidez baizik ez dute erdiesten elkare horiek, haien araudiak Estatu Kontseiluak azterkatu eta ontzat eman ondoan.

(3) Euskaltzaindiaren izaera juridikoa finkatzera lagundu duten bi suprefetak Perrier (1987an) eta Sapède (1992an) izan dira

Badu hamar urte beraz Euskaltzaindia, osatua den bezala, bere osoan beraz, Frantzian onartua dela, nahiz haren araudiak Frantzian, Espainian ez bezalakoak diren.

## **EUSKALTZAINDIAREN LEGEZKO IZAERA FRANTZIAN GAUR EGUN**

Frantzian Euskaltzaindiak duen erabidea 1995ean onartu zen elkarte horretako estatutuek mugatzen dute. Hona zein diren puntu garrantzizkoenak:

### **Onura publikoko elkartea da Euskaltzaindia Frantzian.**

1987az geroztik, bada Frantzian *Euskaltzaindia* izeneko 1901eko legearen arabera elkarte bat, eta 1995az geroztik elkarte horrek onura publikoa dakarren elkarte gisa ezagutua da (4). Helburu horiek araudietan zerrendatuak dira.

### **Frantziako elkartearen xede soziala: Euskaltzaindiaren ordezkatzeta.**

1995eko araudiaren arabera elkartearen helburu soziala hau da: *1918an sortu zen eta egoitza Bilbon (Bizkaia) duen Euskararen Akademia, Euskaltzaindia, frantses lurraldean ordezkatzeta eta indarrean jartzea* (1. artikulua). Bestalde, elkarteak bere araudian adierazten du *Euskaltzaindiaren, araudiak eta helburuak onartzen dituela*. (1. artikulua)

### **Frantziako elkarteko kidesuna jatorrizko Euskaltzaindiak ematen du, eta beraz Euskaltzainak dira Frantziako elkarteko kideak, eta bakarrik haiek.**

Honela dio araudiak: *Elkartea kide titularrek, ohorezkoek eta urgazleek osatzen dute. Elkarteko kideak, Bilbon 1918an sortu Euskararen Akademiako, Euskaltzaindiko kide titularrak, ohorezkoak eta urgazleak dira. Bakoitzak elkartean duen kidesun mota, euskaltzain gisa daukan ezagutza motak ematen dio* (3. artikulua).

### **Ez da hiritartasunari datzekion mugarik aipatzen araudietan.**

1995an onartu araudiaren arabera deusetan ez da aipatzen kideen hiritartasuna. Horrela 1995etik 2004 arte Euskaltzaindiko lehendakariak frantses hiritartasuna bazuen, Euskaltzaindian gertatu lehendari aldaketak gertatuz geroztik, Espainol hiritartasuna du.

### **Elkartearen bizia (Frantzian) Biltzar nagusian hautatu bulego batek eramaten du.**

Araudiak garbiki dio: *Elkartearen Biltzar Nagusia euskaltzain titularrek (=osoek) osatzen dute*. Biltzar nagusi hori urtean behin gutietatik biltzen da (8. artikulua). Horrek segurtatzen du legez Euskaltzaindia egiazki ba-

---

(4) Horregatik kideek urtesaria ordaintzeko obligazioa dute. Araudien arabera 15 eurokoa da gaur egun urtesari hau. Urteko kontuetan sartze hori nahitaez agerrarazi behar da.

karra dela (5). Elkarteko buruzagiak biltzen dituen *bulegoa burulehenak, hiru buruordek, idazkari batek eta diruzain batek osatzen dute* (5. artikulua) (6).

### **Elkartearen legezko eginbideak.**

Legeak elkarteari ematen dizkion betebeharrak bakarrak prozedurazkoak eta kontuei buruzkoak dira. Adibidez elkartearen bulegoak hartzen dituen erabakiak orriak zenbakituak dauzkan eta zuriunerik eta oker-marrarik ez duen akta-kuaderno ofizial batean jaso behar dira (6. artikulua). Halaber, elkarteak bere kontuak atxiki behar ditu eta urte guztiez aitzineko urtean Frantzian jaso diru laguntzen baliamoldea azaldu behar die Prefetari, eta Barneko, Kulturako eta Hezkuntzako ministroei (15. artikulua).

## **ELKARTEAREN GAUR EGUNGO FINANTZABIDEA**

Euskaltzaindiak legezko izaera duen puntutik diru-laguntzak jaso ditzake Frantzian, hango elkartearen bidez. Franko luzaz oso tikiak izan dira laguntza horiek eta ez zuen horrek ondorio handirik. 2001az geroztik ordea, gauzak zer-bait aldatu dira eta azken urteetan urte guztiez Frantziako elkarteak 128 000 euro jasotzen ditu *Euskal Herriko Hitzarmen berezia* deitzen den programa bati esker (2006 arte irauten duena). Hortik ateratzen du elkarteak Frantzian diru gehiena (7).

Iazko urtea arte Euskaltzaindiak diru hori hiru administrazioarengatik jasotzen zuen, galdeak bakoitzari bederazka zuzendu ondoan: Departamenduari, Herrialdeari, Estatuari (Kulturako ministerioari). Beti oso berandu eta paper asko ibili ondoan heldu ziren laguntza horiek. Aurtendanik gauzak aldatu

---

(5) Praktikan Euskaltzaindiarentzat berarentzat, Frantziako legeen arabera Euskaltzaindi hori Iparraldeko ordezkari batzuk ez da, eta biltzar nagusiaren egiteko, elkarteko bulegoak, aurreko ohiturari jarraikiz, urte guztiez Iparraldeko kideak biltzar batera deitzen ditu, urgazleak eta ohorezkoak ere gomiatuak izanik, eta baita laguntzen duten erakundeetako hautetsiak, Euskaltzaindiaren egiten diren lanen berri emateko, eta Frantziako elkartearen kontuak aurkezteko.

(6) Urtarrilaz geroztik, burulehena euskaltzainburua da eta bulegoko beste kideak Iparraldeko euskaltzainak: euskaltzainburuordea (Frantzian, buruorde eta diruzaina), Iparraldeko ordezkaria (Frantzian buruorde eta idazkaria), Jean Haritschelhar (Frantzian buruordea). Araudiaren arabera hilabetearen behin gutienik biltzen da.

(7) Dakigun bezala Euskaltzaindiak, ahal den neurrian, Erakunde publikoek eskaini tokietan jartzen ditu bere ordezkarietako egoitzak. Ordea, bere egoitza berezkoa Iparraldean izan duenaz geroztik, Euskaltzaindiak hura alokatu behar izan du, nahiz, duela zortzi bat urte edo, Baionako alkateak Euskaltzainburuari hitz eman zion toki bat emanen ziola obrak egitekoak ziren Gaztelu Berriko Ingeles dorrea deitu bastizan. Zorigaitzez geroztik toki hartan obrak egiteko dirurik ez baita bozkatu, promes hori ele onetan gelditurik egona da. Halere, berrikitan galdea berritz egin zaio alkateari zer-bait gisaz hitz eman zuena ez ote zezakeen obra. Baietz jakinarazi du. Badirudi, beraz, datorren urtean egingen direla Gaztelu berriko beste toki batean obra batzuk, Euskaltzaindiari 100 m<sup>2</sup>ko egoitza baten eskaintzeko gisan. Gauzak ongi badoaz, 2006ko udan edo udazkenean sartu behar luke Euskaltzaindiak Baionako Herriko etxeak utzi egoitza berrian.

behar lirateke. Alabaina orain sortu berria den *Euskararen Erakunde Publikoa* (EEP) deitzen den erakunde batek zuzenduko du euskarari buruzko politika publikoa, eta hark banatuko ditu diru-laguntzak (8).

Euskaltzaindiak harekin duen aurtengo hitzarmena berrikitan izenpetua izan da. Datorren urtean beste bat izanen da, honen idurikoa, eta gero ondo-ondo hiru urteentzat segur aski negoziazio berriak egin beharko dira.

Oraingo izaera juridikoa aurrekoa baino anitzez egokiago bada (diru-laguntzak hartzeko, eta Euskaltzaindia bere osoan ezagutua izan dadin Frantzia), halere, ez da nahi genukeen bezalakoa, bikoiztasun juridikoa hor baita beti. Itxura guzieren arabera, Estatuaren arteko hitzarmen bilateral berezirik egiten ez bada behintzat, bikoiztasun hori hor izanen dugu beti, eta, Europa mailako elkarte lege berriak onartzen ez bada, haren arabera jokatu behar dugu nahitaez.

Egoera horretan kontuetako harremanak honela bideratuak dira:

- Elkartek Frantzia dituen kontuak Administrazioak onetsi kontulari berezi batek onartu behar ditu urte guzietan. Elkarteko diruak Frantzia egiten diren xahutzeen ordaintzeko baliatzen badira gauzak argi dira, eta ez da arazorik. Adibidez, gaur egun, ordezkartzaren egoitzako gastuak, edo IGNko toponimiako lanetako xahutzeak, Frantzia zuzenean egiten baitira, erraz da haien zuzitzea. Baina nola agerraraz gure kontuetan, Iparraldeko ordezkartzak batzordeetako lanentzat egiten duen ekarpena, diruketa hori Espainiaren aldeko erakundeari bidaliz egiten denaz gero? Egia da diruketa hori araberan zerbait simbolikoa dela, baina gisa guztietan, ttipi ala handi, kontulariak haien zuzitzeko modua behar du.
- Aurkezpen txostenetan beti argiki adierazten da, ikerketa proiektuentzat emanak diren diruak Frantziako parteak proiektu orokorrari egiten dizkion ekarpenak direla (portzentaia adierazten da) (9), gisa horretan ongi azpimarratzen delarik Euskaltzaindiaren ikerketa proiektu handiak eta batzorde lanak bat direla mugaz bi aldeetan. Kontulariak, haatik, ezin dezake holako oinarrikerik erabil bere kontuetan (10): hark obligatuzki erran behar du Frantziako Euskaltzaindiak lan batzuk mantzen dizkiola Espainiako jatorrizko Euskaltzaindiari, eta honek Iparraldetik mantzen zaizkion lanak fakturatzen dizkiola.

(8) Euskaltzaindia EEPren Aholku Batzordeko legezko partaide da.

(9) Baionako ordezkartzako gastuak kanpo, portzentaia hori informalki ikerketa proiektu orokorren kontuetan %10ekoa izan dadin nahi lukete Iparraldeko Euskaltzainek. Ordea, gaur egun, urrun gaude hein horretarik (portzentaia hori %6koa da aurtengo aurrekontuetan).

(10) Arrazoia hau da: Frantzia elkarrekin batek legez debekatua du beste elkarte bati (izan dadin Frantziakoa edo beste estatu batekoa) diru laguntzarik ematea. Nola Espainian Euskaltzaindia beste nortasun juridiko bat baitu, hari ematen zaizkion diruak faktura baten bidez xuritu behar dira beti, faktura hartan manatu lan baten ordainketa zehazten delarik.

## **GOGOETA BATEN OINARRIA**

Horra laburzki adierazirik nola agertzen zaigun Euskaltzaindiaren egoera Iparraldean. Dударik batere gabe azken hogeï urteetan hobekuntza handiak izan dira, eta gaur egun

- Diru harreman horien errazteko bi entitateren artean Ekonomiazko Multzo Europar baten eratzea, edo horrelako bideak, ikertzeko xedea izan zuen Euskaltzaindiak, eta P. Zabaletaren eraginik, txosten bat ere egin zuen aditu batek horri buruz duela zenbait urte. Halere orain arte txosten hori ez da eztabaidatu Euskaltzaindian, eta ez obratu. Orain dugu parada.